

52.
zk.


1997KO
APIRILA

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

gasteluz

gasteizko euskaldunon aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27



Gaztedi Rugby Taldea

20 urte kirolik
zintzoenari eutsiz

Saioa Del Palacio:

ITSASOKO
AZKEN
OLATUA



GEU, idazte

Euskal hiriak

KORRIKA

- Begira, seme! Han doa Korrika.
- Non, aitatxo?
- Hantxe, mendi haien magalean.
- Baina, aitatxo... Korrika ez al da izaten oso gauza inportantea?
- Bai seme. Halaxe da.
- Orduan, zergatik ikusten da hain txikia?
- Ba... oso urrun dagoelako.
- Eta, aitatxo, zergatik dago hain urrun?
- Ba... pentsatu dutelako hau ez dela lekurik hoberena Korrika pasatzeko.
- Baina, aita, ez al da Korrika euskara bultzatzeko izaten?
- Bai seme. Hala da.
- Ba, Miren andereñoak beti esaten digu, euskaraz hitz egin behar dugula, hemen euskara berpiztu behar delako.
- Eta arrazoi osoa dauka andereñok.
- Ba, orduan... hemen euskara berpiztu behar bada eta Korrika euskara bultzatzeko bada, zergatik ez da Korrika hemendik pasatzen?
- Ba, gurea bezalako herri txikietan ez dagoelako nahi adina diru kilometroak erosteko.
- Baina nik astero hogerleko bat aurreratzen dut eta ia-ia txerritxoak beteta daukat!
- Bai, seme, baina hiri handietan txerritxo asko betetzen dituzte.
- Eta zer egin dezakegu orduan guk?
- Ai, seme... ez dakit! Baina segi euskaraz hitz egiten, horixe baita gure eginbeharra. Eta hala segitzen baduzu, zuk euskararen burruka irabazteko, Korrikaren beharrik ez duzu izango.

Asier Pz. de Karkamo

Antso Jakituna

FUNDAZIOA

Oraingo hilabetea, apirila, liburuei estu estu loturik dago, horregatik, oso garai egokia iruditzen zait Antso Jakituna fundazioari buruz hitz egiteko. Ohituta gaude gauza guztiei data ezartzen eta gertakariak egun jakinetan gogoratzen. Hori horrela, apirilak herrien historian gertatzen den kultur adierazpenik garrantzitsuenetako bat ekartzen digu gogora, herrien oroimen idatzia, liburuetan isladaturik ageri dena. Milurtekoaren bukaeran eta aro berri baten atarian gaudelarik, badirudi teknologia berriak betidanikoak zokoratzen ari direla. Une honetan ezin aproposagoa iruditzen zait, beraz, "gure lagun ona" hizpidera ekartzea.

Lagun on horri eskaini nahi diot artikulu labur hau. Liburuez eta informazioaz ari bagara, nahitaez arlo horretako erakundetik garrantzitsuenetako bat aipatu beharra dago, hor bildurik baitago "Euskal Herriaren oroimen idatzia".

Zer da Antso Jakituna fundazioa? Antso Jakituna fundazioa dokumentazio-zentro disziplinaritekoa dugu eta bertan Euskal Herriko kulturaren inguruko gaiak besterik ezin dira kontsultatu, baita euskal kulturak edozein hizkuntzatan edo edozein lekutan dituen adierazpen guztiak ere. Arreta berezia eskaintzen die, hala ere, euskarazko argitalpenei. Berrogei urte baino gehiago dira zentro hau ireki zenetik eta bertan monografiak eta liburuak aurki ditzakezue, eta sailkako argitalpenak, aldizkariak, egunkariak, txostenak, urtekariak, mapak, txartelak, foiletoak, argazkiak, euskarri optikoak, magnetikoak e.a. Gainera, bertan biltzen dira artxibo familiar batzuk, aztertzen baten errazak ez direnak. Era berean, informazio-kopuru ikaragarria dago; horrexegatik, hain zuzen ere, nazioarteko oso zentro gutxi dute haren maila arlo horretan.

Norentzat da edo nori zuzenduta dago? Gehien bat ikerkuntzan aritzeko bada ere, Euskal Herria bere kultur adierazpen eta



ARG: edorta sanz

adierazpen artistiko guztietan aztertu nahi duten pertsonak zein kolektiboak joan daitezke bertara kontsultak egitera. Horretarako, zentroak berak emandako txartel bat baino ez da behar. Beraz, erakunde publikoa da.

Nola eskura daiteke informazioa? Zentroak fondo automatizatuak dauzka, guztira, 80.000 erreferentzia baino gehiago aurki daitezke liburuaren katalogoan eta 5.000 izenburu baino gehiago aldizkariaren eta egunkariaren katalogoan. Azken katalogo honetan aldizkariaren eta egunkariaren sailean ditugun ale guztiak bildurik daude, baita 15.000 dokumentu artxibistiko ere.

Bestalde, fundazioan 3 datu-base dauzka, jende guztiak kontsultak egiteko erabil ditzakeenak. Ondoko gaiak kontsulta daitezke bertan: Antzinako bibliografia: bestela, dokumentu horiek kontsultatzea zailagoa izango litzateke, hondatzen errazak direlako; CD ROMen editatutako egunkariak, Euskal Autonomi Elkarteak eta Nafarroakoak; Aldizkari guztien aurkibideak informazioa askoz ere azkarrago eskuratzeko.

Hori guztia eta askoz ere gehiago da Antso Jakituna fundazioa. Esaterako, jardumaldiak eta erakusketak antolatzen ditu, argitalpenak editatu... ahalegin guztiak egiten ditugu euskal kultura ezagutzeko eta zabaltzeko lanean.

Carmen Gomez, ANTSO JAKITUNA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

SAN PRUDENTZIO
BERTSO SARIKETA

FINALAURREKOA

La Puebla de Labarkan
Assa Ikastolan

Apirilaren 13an, igandea
goizeko 11,30etan
ondoren bertso bazkaria

ANTOLATZAILEA

ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA

LAGUNTZAILEA



FINALA

Gasteizen
Floridako Kultur Etxean

Apirilaren 20an, igandea
goizeko 11etan
ondoren bertso bazkaria

BABESLEA



1997ko apirila

2

geu idazle, asier pz. de k.
kolaborazioa, carmen gomez

3

bertsoak, irati

4

kalea mintzo: Top Gasteiz

5

zurrumurrak eta xuxuriak

6

GASTEIZ:

Umandi eta Odon de
Apraiz liburuetan

8

Alde Zaharreko
eraberritze plana

11

KULTURA:

- Liburaren azoka

- Gasteiz,

Iparraldeko Atenas

- Saioa Del Palacio:

euskarazko arabar
literaturaren etorkizuna

18

KIROLAK:

Gaztedi Rugby taldeak
20 urte bete ditu



irati lotina

DOINUA:

ZORTZI PUNTUKOA



Altu: asier pz. de karkamo

Euskal Herria bere hizkuntzaren
aldeko da beti mintza
ta beste batzuk eduki nahian
daude euskararen haritza
Rendu nahiean bere sustraiak
Rendu nahiean bizitza
bere iraupenaren giltza
lapurtzeko hainbat ekintza
burutu nahian dabilta
baina gainditu egingo dugu
haien eraso bortitza
argi ta garbi daukagutako
Herriak du azken hitza.

Herri bat ez da ezertxo ere
bere hizkuntzarik gabe
ta guk gurea defendatzeko
edozertarako prest gaude
ez zaigu inola indarririk falta
ez gaude bate(re) herabe
gure hizkuntzaren alde
denok Korrikan xuabe
egon gara nahiko trebe
erakutsiaz gu geu garela
gure buruaren jabe
Euskal Herriak irabazi du
txapela beste behin ere.

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAQA,

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO, ASIER PZ. DE KARKAMO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

WIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU, ASIER
PZ. DE KARKAMO

KOLABORATZAILEAK:

TXIFI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, IAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)

22

MUSIKA: Gaurkoak eta
betikoak; klasikoak

24

HAURRAK:

Afrikarren goseari adio!



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



GEU

5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunen aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

beren akotatu



DUELA QUTM, egunkari batean agertutako informazioaren arabera, Gasteiz, Estatuko hiru hiriburu onenen artean kokatuko litzateke. Bertan goraiatu egiten da Gasteizko garbitasuna, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak, parkeak eta berdeguneak... Egia esan, Gasteizek garapen handia izan du mende honen hasieratik. Horretaz gain, EAEko hiriburu izendatu eta Legebiltzarra eta Jaurilaritzaren egoitza bertan finkatu ziren 1975ean. Aldaketa huek guztiak, zorionez, ez dira modu kaotikoan egin -Euskal Herriko beste hainbat lekutan gertatu den legez-. Dena dela, Gasteizek ere baditu alde ilunak. Azter ditzagun kontu hauek.

1.- GASTEIZ ESTATUKO HIRU HIRI ONENEN ARTEAN OMEN DAGO. ZEIN DA ZURE IRITZIA?

2.- ZER DAUKA ON ETA ZER TXAR GASTEIZEK?



Koldo Saez de Castillo
IKASLEA

1.- Itsasoa izango balu lehenengo lekuan egongo litzateke. Baina, edonola ere, oso ondo dago.

2.- Oasteizek duen arazorik handiena da gehiegi zabaltzen ari dela eta nortasuna galtzen ari dela. Gauza onen artean Alde Zaharra aipatuko nuke, ezin hobea delako.



Joseba Beñat
ELEKTRIZISTA

1.- Ados nago iritzi horrekin. Gasteiz oso hiri erosoa da bizitzeko.

2.- Gasteizek duen gauzarik onena zera da: hiri baten zerbitzuak dituen herri txiki bat dela. Kontra, berriz, gero eta gehiago, hiri handi baten itxura hartzen ari dela.



estibalitz ortiz de muna
IRAKASLEA

1.- Nire ustez, merezi du postu horretan egotea. Arazo batzuk baditu, baina nork ez ditu arazoak?

2.- Kaleak txakur kakez beteta daude eta hori konpodu beharko litzateke. Hori, ordea, ez da udalaren errua, txakurren jabeena baizik.



María García de Bikuña
ETXEKOANDREA

1.- Nik uste dut lehenengo postuan dagoela. Betidanik Gasteizen bizi izan naiz eta harro nago.

2.- Parke asko dauzkagula eta kalean lasai ibili zaitezkeela nabarmenduko nuke nik.



Mariasun Aizpuru
IRAKASLEA

1.- Bat nator hirugarren postuarenarekin. Hiri erosoa delako eta zerbitzu onak eskaintzen dituelako.

2.- Trafikoa da gauzarik txarrena, gaizki antolatuta dagoelako. Beste zerbitzu batzuk nahiko onak direla uste dut.



Jose Luis Conde
TABERNARIA

1.- Ados nago iritzi horrekin. Zerbitzu onak ditugula esango nuke.

2.- Gero eta aparkaleku gutxiago daukagu eta hori arazo bat da. Ez nago oinezkoen guneen aurka. Gauza onen artean, Gasteizko jendea oso jatorra dela esango nuke.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana 'gutxi' Argazkilaria: Joseba Untzalu

MIKO
izozkiak

★
TABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz



Hau udaberria!

Badator udaberria. Heldu da esango nuke, erratzeko beldurrik gabe. Eta aurren oso goiz, goizegi. Seguru aski izango du ondorioz.

Martxoaren hasierarako lorez gainezka inguru guztiak eta txoriak kabiginan. Goizegi! Oraindik, aurreratutako guztia izorratuz, izotz berantiarren bat izango dugunaren beldur naiz.

Baina 1997ko udaberria kultura alorrean ere loratuz datorrela esan genezake, aspertzeko biderik gabe. Martxoaren hasieratik "Korrika Kulturala" bazter guztiak urratzen. Hilaren bizkar hezurrean "Korrika" bera, euskarari, AEK-ren bidez, lagunduz, gorputzak arintzeko aukera paregabea.

Era berean, Nafarroako bertsozaleek antolatuta, herrialde zaharreko bertsolari txapelketa bete-betean ipar eta hegoaldeko herrietatik zehar.

Eta nola ez, urteroko ohiturari jarraituz, Arabako bertsolariak ere dantzan, beno kantuan. Martxoaren 14an hasi eta apirilaren 20a bitarte "Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama" bertso saria martxan izango dugu. Aurren gainera, lehen kanporaketak

burutu ondoren, final aurreko saioak Ebro ibaiaren mugaraino egingo du txango: La Puebla de la Barkaraino hain zuzen.

Guzti hauen erdi-erdian, Aberri Eguna. Bada, bai, nahi duenak nahi duena aukeratzeko aukerarik. Beldur naiz hauetan guztietan parte hartzeak ez ote gaituen San Prudentzio jaietarako gehiegi nekatuko. Hala ere gustora gozatutako bidea baldin bada...

Beraz, euskararen udaberria datorkigula aitortu dezakegu eta ondo aprobetxatuz gero, orain lore denak fruitu ederrik eman dezakeela uste dut, "kanpoko" izotzen beldurak uxatuz.

Animo, bada, eta bai hanka zein belarriak ongi prestatuz, denok "EUSKAL FESTARA". Ikusiko gara.



euskaraz moldatu

Gure hizkuntzaren etorkizunaz aritzen garenean hainbat faktore aipatu ohi ditugu: inguruko erdaren presioa, onarpen ofizialik eza, dirulaguntzen urria eta abar.

Bada, ordea, beste faktore bat gutxitan aipatu ohi duguna edo, aipatzez gerotan ere, bere zabaltasun osoan agertzen ez duguna: euskararen kalitatea.

To! -esango duzue berehalakoan- hemen dugu berriro ere filologo jakintsu pedante horietako bat inpresionatzera heldu zaiguna. Baliteke. Kontrakoa da, ordea, nire asmoa, desinpresionatzea, alegia. Desinpresionatzea diot, bai, zeren horrexen beharra somatzen baitut nik aspaldion euskal hiztunon artean; desinpresionatu eta erlaxatu beharra.

Ez da erraza, badakit, erruz ugaltzen ari baitira "kaleko euskara hobetzen" eta antzeko ikastaro-sermoi edo adoktrinamendu saioak gurean, nire ustez inongo mesederik egiten ez digutenak, portzierto.

Jakina da hizkuntza guztietan daudela erregistro-maila desberdinak, baina hori, geurean bederen, teoria hutsean gelditzen delako susmoa hartuta nabil aspalditxo honetan.

Zeren, azalduko al dit norbaitek zer arraiotarako behar dugun kaleko elkarriketa arruntetan "dakizkieke", "zuri dagokizu hastera" eta antzeko munstrokeria-pedanterekiatan aritzea, euskaraz normal eta korriente ari garenean "posible zaie" eta "zuri tokatzen zaizu hastera" naturalago ateratzen bazaizkigu? Etorriko da, halere, baten bat esanez "zure txanda da" ere badagoe esaterik. Konforme, hori ere bai, baina zergatik da euskaldunago edo jatorrago txanda (tanda) tokatu baino? Eta, gainera, loteria zer egiten zaigu? Erori (!) ala tokatu?

Iritziak iritzi, ez dut uste sekula bururatuko litzaigukeenik "si me lo das", gure herrialdean hain erabilera hedatua duten gisa horretako forma "okerrak" zuzentzen hastera (hizkuntza mintzatu, betiere). Horixe besterik ez dut, bada eskatzen euskararentzat. Utz ditzagun alde batera filologokeriak eta lasaitu gaitzen.

Iradokizun bat egitera ere ausartuko naiz euskararen irakaskuntzan ari den orororentzat: alda itzazue helburu-goi-buruak eta bihur dadila ikastaroen xede EUSKARAZ MOLDATZEN ikastera.


BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

JANTZI ETA
OPARIAK

Kutxillera, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ





INFORMAZIO SEXUALA

Udalak informazio bulegoa jarri du Plaza berrian.

GAZTEEI sexualitateari buruzko informazioa emango dien udal zerbitzua martxan dago jadanik. Bertara hurbiltzen diren neska-mutilen kezka eta galderei erantzuna ematen saiatzeaz gain, zerbitzu berri honek formazio ikastaroak emango ditu Gasteizko Hezkuntza Ertaineko zentruetan.

Gazteei sexu informazioa emateko bulegoa Gazteen Informazio Bulegoaren ondoan dago (Plaza Berrian); astearte eta ostegunetan egongo da zabalik (arratsaldeko 6,30tik 8,30tara). Plaza Berrira joan beharrean informazioa telefonoz jasotzea nahiago dutenek 16 15 83 telefono zenbakira deitu behar dute.

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI

Umandi eta Odon de Apraiz liburuetan

JAURLARITZAKO KULTURA SAILAREN 'BIDEGILEAK' BILDUMAREN BARRUAN ARGITARATU DIRA

Blanca Urgell gasteiztarak Andoni Urrestarazu "Umandi" eta Odon Apraiz euskaltzale arabarrei buruz idatzitako liburuskak argitaratu ditu Jaurlaritzako Kultura sailaren "Bidegileak" bildumaren barruan. Bilduma honek euskalgintzan aintzindari izan diren pertsonak eta taldeak ematen ditu ezaugarri eta lau liburu argitaratzen ditu urtero, 1991ean sortu zenetik. Aurten Urgellen lanekin batera Faustino de Zerio y Segura eta Pedro Diez de Ulzurrun nafarrei buruz idatzitakoak plazaratu dira.

Kultura saileko arduradunek azaldu zuten, aurkeztutako lanekin omendu diren euskaltzaleak amankomuneko hainbat ezaugarri dituzte: XX. mendekoak dira, euskaldun berriak, inguru erdaldunetan sortuak eta euskararen aldeko lan handia egindakoak.

Arabarrei dagokionez, Andoni Urrestarazu "Umandi" (1902-1993) Gasteizko euskaldun berrion aitona bezala definitu zuen Blanca Urgellek: "Berak hezi zituen bertako lehenengo euskaldunak, gero gure irakasle izan zirenak". Araian jaioa, 17 urte zituela ekin zion euskara ikasteari, Arabako hiriburuko lehenengo euskal eskolak sortu zituen eta 1955. urtean, erbestean zegoela, Gramática Vasca liburua argitaratu zuen, gerra ostean idatzitako lehen gramatika.

Odon Apraiz (1896-1984) gasteiztararen meritorik han-



EDORTA SANZ

diena "Arabarro euskaldunak garea buruan sartzea eta gure sustraiak euskaldunak direla" gogoraraztea izan zen Blanca Urgellen iritziz. Horrela, Iparraldeko eta Debaldeko euskalkiak ikertu bazituen ere, Arabaren euskal sustraiak aztertzea izan zen bere ardurarik handiena. Euskaltzaindiako sortzailea eta bertako ohorezko kidea izan zen.

Bidegile bildumako liburuak euskaltegiatiko ikasleen artean banatu ohi dira, "hizkera erraz eta atseginean idatzita daudenez, euskaraz irakurtzeko ohitura hartzeko egokiak baitira".

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI

Arabako Esperanto Elkarteak 10 urte bete ditu

ERREPUBLIKA GARAIA BESTE TALDE BAT EGON ZEN GASTEIZEN

ARABAKO Esperanto Taldeak urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiak hizkuntza unibertsala izeneko zabaltzeko aprobetxatu ditu. Filme emanaldi bat "La ciudad quemada", erakusketa bat, hizkuntz minoritarioen eta esperantoaren harremanari buruzko mahai ingurua (elkarteko gehienak euskaldunak dira) eta esperantoaren historia eta egungo egoerari buruzko hitzaldia izan ziren antolatutako ekitaldiak. Erakusketak bildu zuen jende gehien -300 pertsona ingururen bisita jaso zuen- eta, orokorrean, izandako erantzunarekin pozik agertu da Elkarteak.

Urteetan zehar, Europa mailan antolatu diren topaketa eta kongresuetara joanda atzerriko

lagun asko lortu dituzten arren, 10. urteurrenako ospakizuna etxekoekin egitea erabaki zuen Elkarteak, Gasteizen esperantoa zabaltzeko.



Bestetik, Elkarteak hamar urte bete baditu ere, Arabako esperantisten historia askoz luzeagoa dela gogoratu nahi izan dute erakusketarekin. Izan ere, Errepublika garian dagoe-neko esperantisten talde bat bazegoen Gasteizen, frankismoan isilarazia izan zena. Bata eta

bestearen artean urte askotako zuloa egon den arren, duela mende erdi hasitako lanak jarraipena duela erakutsi nahi izan dute.

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI



22 65 64
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

26 03 54

vitales



MIKEL
DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Ikastetxeetako euskara eztabaidagai

UNIBERTSITATERA DOAZENEN EUSKARA MAILARI BURUZKO MAHAI INGURUA

Deredutik unibertsitatera euskara hobean' gaitzat harturik, mahai inguru interesgarri bat antolatu zuten irakasleen eskola-koek 150. urteurrena ospatzeko egiten ari diren ekitaldien barnean. Ikasleek, oro har, ikastetxeetatik ateratzean erakusten duten euskara maila kaskarra izan zuten aztergai solaskideek. Azken urteetan euska-

raren kalitatea hobetzeko egin diren saioetan agertu diren oztipoen diagnosia egin ondoren, arazo horri aurre egiteko egon daitezkeen irtenbide eta proposamenen inguruan aritu ziren parte hartzaileak.

Mahai inguru honetan euskara eta irakaskuntza arloko zenbait adituk parte hartu zuten, bestek beste, Miren Azkarate euskaltzainak, Luis Mari Larringan katedradunak eta irakaskuntza elebidunean aditua den Josu Sierrak. Horiez gain, hizlarien artean Juan Mari Juaristi Koldo Mitxelenako euskara irakaslea eta Aitziber Etxebarria eskola horretako ikaslea ere izan ziren.

XABIER ZABALETA

Gasteizen 5 ikastetxek eraman zuten 10. Korrikaren lekukoa

Geu Gasteiz aldizkari 51. zenbakian Korrikari buruz argitaratutako informazioen artean, Gasteizko kaleetan barrena lekukoa Abetxuko Ikastolak, Toki Eder Ikastolak eta Koldo Mitxelena Institutuak eramango zutela idatzi genuen eta ikastetxe horietan Korrika zela-eta antolatutako ekintzen laburpentxo bat ere eman genuen. Geroago jakin izan dugunez, beste bi ikastetxek ere eraman zuten lekukoa Korrika 10ean: Ikasbidea Ikastolak eta Mendebalde Ikastolak hain zuten. Hutsigite horren arrazoia oso sinplea da: martxoko aldizkaria

inprentara bidali genuenean, hiru ikastetxek zuten erosita kilometroren bat eta horregatik aipatu genituen horiek bakarrik. Ezinezkoa



XABIER PZ. DE KARKAMO

zitzaigun kilometro guztiak salduta egon arte itxarotea.

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Euskarazko irratigintza, nora?

MAHAINGURU BATEAN ARABAK EUSKARAZKO IRRATIA BEHAR-BEHARREZKO DUELA AZPIMARRATU ZUTEN HIZLARIK

Arabak euskarazko irratia behar-beharrezkoa duela azpimarratu zuten euskarazko irratigintza-aren etorkizunari buruz Geu elkar-teak antolatutako mahai inguruan parte hartu zuten hizlariak. Mikel Saez, Araba Irratia proiektuko kideak, taldeak orain arte egindako lana eta etorkizuneko helburuen berri eman zuten. Euskalerria Irratia, Arrasate Irratia eta Euskadi Irratiko kide bana eta Txema Ramirez, Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritza fakultateko irakaslea izan ziren Saezekin batera hitz egin zutenak.

Irratietako kideek beraien proiektuen hasiera eta egoeraren berri eman zuten. Euskarazko irratien ezaugarriak buruz mintzatzean, horiek independenteak, anitzak, profesionalak eta kalitatezkoak izan behar dutela bat etorri ziren guztiak. Era berean, "egokiena gizarte ekimenari lotutakoak izatea dela" adierazi zuten.

Abian dagoen Araba Irratia proiektuari buruz, berriz, Txema Ramirezek azken urteotan igoera nabarmena izan duen euskaldun

kopuruaren beharrei erantzuteko ezinbestekoa dela adierazi zuten. Horretaz gain, "Hego Euskal Herriko irratik kontsumo handiena izan arren, Araba euskarazko irratirik ez duen Euskal Herri osoko herrialde bakarra" dela gogoratu zuten EHUKo irakasle denak.

Proiektu gehienetan bezala, dirua lortzea da irratia lanean hasateko oztoporik handiena. Erakundeen diruaren menpe egotea ez dela komenigarria esan zuten hizlari guztiek eta Kike Diez de Ulzurrun, Euskalerria Irratiko esatariak Iruñeko proiektuaren diru iturri nagusia bazkide partikularrak direla azaldu zuten: urtero 8.000 pezetako kuota ordaintzen duten 850 bazkide dira irratik nafarraren finantza biderik garrantzitsuenak. Araba Irratia proiektuko kideak Euskalerria Irratiko erudia jarraitzeko asmoa dutela adierazi zuten: "Horrek jendearen inplikazioa ziurtatu eta erakundeen diruaren menpe egotea ekiditen baitu".

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI



E.S.

TABERNA

Ulpabi San Antonio, 39

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI ETORRI

xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

BERTSOLARITZA

Prudentzio Deuna Estibalizko Ama Bertso sariketa abian da

Martxoaren 21ean Prudentzio Deuna Estibalizko Ama bertso sariketaren final laurdena izan zen. Apirilaren 13an final erdia izango da eta 20an finala. Honen aurretik Arabako bertso gazte txapelketa ere jokatu zen. Lehenengo eta bigarren Izotz Gartzia eta Ainara Razkin izan ziren eta berauei txapelketaren inguruko zenbait galdera egin dizkiegu.

Arabako bertso gazte txapelketan nola ikusi zenuten batak bestea?

I.G.: Ainara nahikoa normal ibili zen. Besteen tamainan.

A.R.: Oso ongi eta fin aritu zen Izotz.

Noiz hartuko duzue parte Prudentzio Deuna Txapelketan?

I: Agian hurrengoan.

A: Oso urrun ikusten dut hori

Nor izango dira finalista aurten?

Egin zuen kiniela.

I: Otamendi, Iriondo, Eñaut Agirre, Rikardo, Ohiane, Zigor

A: Otamendi, Iriondo, Eñaut, Rikardo, Gorka Etxabe eta Zigor

Eta txapelduna?

I: Edonork irabaz dezake. Txapela janzteko buru nahikoa badute denek eta.

A: Otamendi beti izan da gure favorito eta hori ez da sekula aldatuko txapela lortu arte. Hala ere, besteak ere nire bihotzean daude.

Beraz, aupa mutil eta neskatok!

Oskorrik lau kontzertu emango ditu Araban

LAUDION, BIASTERIN, AGURAINEN ETA GASTEIZEN IZANGO DIRA

2 5. urteurrena ospatzeko ondutako diskoa aurkeztuko du Araban Oskorri taldeak hil honetan zehar egingo dituen kontzertuetan. Audio, Biasteri, Agurain eta Gasteizen egingo dituen emanaldietan, Oskorrikoekin batera Kepa Junkera triki-

tilari bilbotarrak eta Kukubiltxo antzerki taldeak hartuko dute parte ikuskizunean. Lehen kontzertua apirilaren 4an izango da eta azkenekoa, Gasteizen egingo dutena, apirilaren 12an.

Kontzertu guztiak gaueko hamar t'erdietan hasiko dira eta sarrera 1.000 pezeta kostako da. Baina, ordainketa Vital Kutxako txartelarekin eginez gero, Vital Kutxak emandako laguntzari esker, 600 pezeta kostako da. Txartel bakoitzeko gehienez bi sarrera eskuratu ahal izango ditu txartelaren jabeak. Aukera ezin hobea dugu, beraz, talde beterrano eta arrakastatsu hau zuzenean ikusi ahal izateko.

XABIER ZABAETA



Santa Maria udan zabalik

TEKNIKARI ITALIAR BATEK KATEDRALAREN EGOERA LARRIA DELA ADIERAZI DU

milioi pezetatik gorako inbertsio publikoa eta pribatua egin da orain arte. Horietatik 1.555 milioi kaleen azpiegitura hobetzeko eta urbanizatzeko erabili dira azken hamalau urteetan.

Konponketa hauekin Alde Zaharreko oinezkoen esparrua handitu egin dute, zerbitzuentzat ibilgailuen zirkulazioa zabalik egongo da eta hegoaldeko komunikazioari eutsi zaio. Aldaketa garrantzitsuenetarikoa bat Santo Domingo, Barrancal eta Kubo kaleek bat egiten duten lekuan gertatu da, oinezkoen esparru bihurtu baitute.

KARLOS FDZ. DE BETOÑO



1 994tik itxita egon den Santa Maria elizak uda honetan bere ateak berri zabalduko ditu. Alde Zaharreko Santa Maria plazan kokaturik dagoen eliza gotiko honek dituen arazoen berri hiritar guztiei zabaltzeko asmoa baitu Foru aldundiak. Horretarako Aldundiak gidari bat jarriko du eta bisitariei katedralaren egindako ikerketen berri eta dituen arazoei buruzko azalpenak emango ditu. Katedralaren egungo egoera aztertu du Giorgio Crocci ingeniari italiarrak eta lau urteko ikerketen ondoren bi arazo larri antzeman ditu, bata gurutze gantetan eta bigarrena barneluzeko erdiko zutabeen. Santa Maria elizaraino hurbiltzen denak hormetako arraildurak eta zutabe deformatuak ikusi ahal izango ditu. Bisita hauek Aldundiak katedrala konpontzeko burutuko duen kanpainan kokatu behar dira.

KARLOS FDZ. DE BETOÑO

Alde Zaharreko eraberritze plana

AZKEN HILABETEOTAN SANTA MARIA ETA ESKOLA KALEAK BERRITU DIRA

U dalak Santa Maria eta Eskola kalean egindako konponketetan 62,3 milioi gastatuko ditu. Lan horietan erabat berritu ditu Santa Maria eta Eskola kaleetako zoladura eta azpiegitura sareak, Arrieta Jauregitik San Vicente aldapara bitartean. Azken lan hauek abenduan hasi ziren eta 4 hilabetez luzatu dira.

Bukatzeaz dauden lan horiekin amaituko da Erdi Aroko gunea urbanizatzeko plangintza osoa. Alde Zaharra Eraberritzeko Plangintza Berezian 10.000



Izotz Ainara

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

JATEXEA

Uetzal

HegoAmerikako jantziak ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

bar • restaurant • albéniz •

Portal del Rey 9

GASTEIZ

aste saindua gasteizen

Nola bizi dugu gasteiztarrok Aste Santua?

GASTEIZTARROK MOETA GUZTIETAKO EKIMENAK AUKERATZEN DITUGU ASTE SANTUA IGAROTZEKO

Kristauen egutegian, inolako dudarik gabe, Aste Santua da garairik garrantzitsuena. Gasteiz hiriko kale nagusienetan kristau taldeek Jesusen nekaldi eta heriotza gogoratu dituzte aurten ere. Eurentzat egun oso bereziak izan dira oraintsu igarotakoak: barauak, haragia jateko debekua, otoitza eta abar. Kristau fededunentzat urteko unerik garrantzitsuenetakoak dira eta telebistako kate gehienek ere Jesusi buruzko pelikulak emititzeko aprobetxatzen dute. Egun horietan hirian atmosfera berezia arnasten dela esan daiteke.

Gasteiztar guztiok, hala ere, ez ditugu berdin bizi egun horiek. Batzuek hiritik alde egiteko eta atsedean hartzeko aprobetxatzen dituzte-eta jai egun hauek. Geu Gasteizkoek bidaia agentzia batera jo dugu eta Araba bidaiak-eko Anjel arduradunak azaldu digu nora jotzen dugun gehien bat arabarrok egun horietan. "Arabak, Aste Santua eta San Prudentzio zubia aprobetxatzen dugu hiritik alde egiteko. Gainera, San Prudentzioko zubia denboraldi baxuan denez,

prezioak merkeagoak izaten dira. Era guztietara, jende asko atera da orain pasa berri dugun Aste Santuan" esan digu Anjelek. Lekuen eskaintza zabala izan arren, "jende gaztea eta ikasleak normalean eguzki bila joaten dira Benidorm eta Saloura egun gutxiko oporrak eguzkitan igarotzeko. Diru eta denbora gehiago dutenak Pragara eta Erromara joaten dira" azaldu digu Araba Bidaiak-eko nagusiak.

EGUN BEREZIAK

Fededunentzat, berriz, Aste Santua oso berezia da eta Erlijio kongregazioek era berezian bizi dituzte egun horiek. Aste Santuaren benetako zentzuaz zerbait gehiago jakiteko gasteiztarren artean oso ezagunak diren monja batzuegana joan gara, General Loma enparantzan dagoen Klarisa komentura hain zuzen. Komentu barruan Maria Extensiones lekaimearekin solasean aritu gara. "Guretzat urte osoan dauden egun berezienak dira. Guk Aste Santuan Jesusen

geu gasteiz

"Guretzat urte osoan dauden egunik berezienak dira. Jesusen berpizkundea prestatzen aritzen gara"

geu gasteiz



EDORTA SANZ

Berpizkundera prestatzen dugu. Garai honetan Jesusen bizitza eta beren hitzak bereziki prestatzen ditugu" adierazi digu Maria Extensionek. Era berean zera aitortu

tu digu: "Klausurako monjen bokazioa oso berezia da eta otoitza da nagusi gure bizitzan". Karitatea kristautentzat oso kualitate garrantzitsua da eta zalantzarik gabe esan dezakegu monja hauek ugari dutela. Elkarriketa egiten ari ginela, ate batetik lau lagun agertu dira, beren aurpegietan lo falta adierazten duten begizuloak nabari dira, "oin beltzak" dira. Florida parkean gaua pasa dute eta izoztuta daude. Gosaltzeko ez dutela ezer azaldu diote Maria Extensiones lekaimeari. Serora, segituan, sukaldara joan da eta fruta poltsa handi bat eman die eta esne beroa ere behereala ekarriko dietela azaldu die.

BESTE DAINBAT OSPAKIZUN

Ohiko ospakizun erlijiosoez gain, hala ere, Gasteizko Aste Santuak izan ditu bestelako berezitasun batzuk ere. Orain gutxi arte, 80eko hamarkadan eta 90eko-aren hasieran nahiko ospetsua egin zen prozesio atea. Herritarren artean iritzi desberdinak sortu ohi zituen prozesio horrek: batzuentzat irain hutsa zen; besteentzat, berriz, ironiaz egindako kritika baino ez.

KARLOS FDZ. DE BETOÑO



ZAVAR SENDO ZINDO

GASTEIZKO BATZUEK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Liburuen ostatu bihurtuko da bi egunez Plaza berria

apirilaren 19an eta 20an Liburu Eguna ospatuko da liburuen presentzia kalean areagotu egingo delarik. Aste buru horretan, liburutendak Gasteizko Plaza Berrira aterako dira eta liburuen salneurria %10 merkeagotuko dute. Liburutendekin batera, plazaren erdian 200 metro karratuko karpa batean, udal liburutegiek hainbat ekitaldi burutuko dituzte. Honako hau aldeez aurretiko ospakizuna izango da, liburuen 'urtebetetze' eguna apirilaren 23an ospatzen baita. Egun horretan kalera atera beharrean, beren ohiko egoitzetan jasoko dute liburuak gorazarrea.

URTEBETZE bezala, Liburu Eguna liburuen plazaratzearekin ospatuko da aurreko ere. Hilaren 19an, goizetik bertatik, liburutendek Plaza Berrian irekiko dituzte beren stand-ak. Plazaren erdian, Udal Liburutegien Sareak karpa erraldoi bat eraikiko du hirugarren urtez jarraian. Liburutendek %10eko beherapena eskainiko dute liburuen prezioetan, baina ez dute Katalunian ohiturazkoa den larrosa oparituko -Generalitateak, orain bi urte egin legez, lore hauek dohainik ematen ez badizkie, behintzat-.

Udal Liburutegien Sarearen karpan, bestalde, bi eremu bereiztuko dira: alde batetik, erakusketarako esparrua egongo da. Bertan, liburutegi normala antolatuko da, non liburuak maileguan har daitezkeen edota edonork bazkide egiteko aukera izango



duen. Bestetik, haurrentzako liburutegi bat egongo da eta hantxe hainbat animazio ekitaldi burutuko dira.

Teresa Castrori omenaldia

Liburuen jaiari hasiera emateko, larunbatean goizeko 11:30etatik aurrera haurrentzako ilustrazio tailerrak izango dira 'A punto' elkar-teak eta Mikel Valverdek eskainita. Hamabietan, liburutendek elkarteak Kultur

Etxeko zuzendaria den Teresa Castrori omenaldi bat egingo dio Foru Aldundiko liburutegiaren zuzendaritzan eman dituen hiru urteetan liburuen eta literaturaren alde egindako lanagatik eta, batez ere, euskararen presentzia areagotzen saiatzeagatik. Liburuen inguruan lan egiten duen norbaiti omenaldia egitearen ekimena iaz gauzatu zen estraineko aldir. Lehendabiziko horretan, Micaela Portilla historialari arabarra izan zen omendua.

Eguneko azken ekitaldia Agada ipuin-kontalari taldearen eskutik etorriko da. Arratsaldeko 7etan "El príncipe desmemoriado" istorioaren aurkezpena egingo dute.

Ipuinak, poesia eta antzerkia

Igandeko ekitaldiek larunbatekoari jarraipena emango diote. Goizeko 12:30etan Virginia Imaz ipuin kontalariak euskaraz ekingo dio istorio kontatze lanari. Ordu batean, literaturari buruzko

topagune bilakatuko da Plaza Berriaren erdian eraikitako karpa. Gasteiz Irratiak zuzenean emango duen tertulian Elena Lopez Agirre, Carlos Perez Uralde, Pedro Ugarte eta Kepa Muruak hartuko dute parte eta amaitutakoan beren liburuak sinatuko dizkiete bertara hurbiltzen direnei.

Poeta kubatar batzuk eta haurrentzako poesia egiten duen Blanca del Rio idazleak, poesia errezitak bat eskainiko dute arratsaldeko sei eta erdietan karpan bertan. Honen ostean, Udal Liburutegien Sareak antolatutako II. Poesia Lehiaketaren sariak banatuko dira.

Ordu berean, Sambhu Antzerki Konpainiak Printze Txikia liburuan oinarritutako 'Nire Izarren Laguna' obra euskaraz antzeztuko du Principal Antzokian. Honekin amaiera emango zaio Liburuen Eguna ospatzeko antolatutako asteburuko jaialdiari.

Edu Lpz. de Luzuriaga

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Berrikoia

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Gasteiz, iparraldeko Atenas

geu gasteiz
Kultura



Apaiztegiko libutegia, tradizioari eusten

edorta sanz

LIBURU bildumak egiteko joera harrigarritzat jo daiteke, inprenta oso berandu sartu baitzen Araban, 1722an hain zuzen ere. Ordurako inguruko hainbat tokitan urte ugariko esperientzia zuten. Besteak beste, inprenta 1485ean sartu zen Burgosen, 1489an Iruñean, 1503an Logroñon, 1546an Lizarran, 1578an Bilbon eta 1667an Donostian.

Kulturaren urrezko garaia bigarren Gerra Karlistarekin eten zen. Hala ere, hiriak liburutegien loraldi bat ezagutu zuen mendea amaitu aurretik. Bergarako Erret Mintegiak bostehun liburutik gorako bilduma zuen eta, Frantziaren aurkako gerra ostean, Arabako Foru Aldundiaren eskuetan gelditu zen. Bergarako Erret Mintegiaren egoitza berean kokatu zen Agirreren Apaizte-

gia. Hango liburutegian 2.500 bat ale zeuden, gehienak gai erlijiosoen ingurukoak. Arlo horretan are garrantzitsuagoa zen oraindik Apaiztegiko Liburutegi Diozesiarra, non 15.000 liburu edo biltzen ziren.

Makina bat liburutegi

Udaletxeko errekurtsio gidaren arabera, gaur egun Gasteizen 12 liburutegi publiko daude (Foru Aldundiko Kultur Etxea eta auzoetan banaturik dauden hamaika udal liburutegiak). Horiez gain, Elizbarrutiko Apaiztegikoa eta Filologia, Geografia eta Historia Fakultatekoa daude. Badira, halaber, emakumeen berdintasuna lortzeko xedea helburu duen liburutegi independente bat, Sancho El Sabio Fundazioa eta lau artxibo (Araba Lurralde Historikoko Artxiboa, Udal Artxibo eta Liburutegia, Gas-

XIX.
mende erdialdera,
Gasteiz iparraldeko
Atenas bezala
ezaguna zen hainbat
eremutan. Urte
haietan, hirian
Gasteizko
Unibertsitatea sortu
berria zen eta
Gasteizko Ateneoa
berpizten ari zen.
Heziketarako zentru
erlijioso eta laikoak
ere baziren. Are
gehiago,
dokumentuek agerian
utzi dutenez, XVIII.
mende erdialdetik
zetorren ohiturari
eutsiz, Gasteizen
liburu bildumak
egiten jarraitzen
zen.

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeaz **taberna**
Kutxileria 23

teizko Artxibo Historiko Diozesiarra eta Artxibo Historiko Probintziala).

Guztien arten, beharbada, Florida Parkeko Kultur Etxea dugu ezagunena. Bertan, 200.000 ale inguru daude bilduta. Hauetatik ia berrogei mila euskal sailean kokaturik daude eta sei mila bat ale euskaraz daude.

Euskal liburuaren fondoa osatzeko bidea zein den azaldu digu liburutegi honetako arduraduna den Teresa Castrok. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak eskainitako euskarria dago, "euskal argitalpenak laguntzeko hainbat ale erosi eta eman egiten dizkigute"; bigarrenik, euskal argitaletxe txikiek beren liburu berrien kopia batzuk bidaltzen dituzte liburutegietara; eta hirugarren bidea, eresketa arruntaren bidez egindakoa da.

Liburutegi publikoa izanik, Kultur Etxea ezin da espezializaziorantz abiatu. Honen betebeharra, ahalik eta gai gehien oinarritzko informazio zabala eskaintzea da. Edonola ere, Florida Parkeko liburutegian badira ale zahar eta bitxi batzuk: XVI. mendeko hogeitaz liburu eta XVII.ekoak beste ehunen bat, esaterako. Euskal adarrari dagokionez, Manuel de Larramendik 1729an Salamancan argitaratutako "El imposible vencido" ("Ezina egin") euskara ikasteko gramatika liburuaren ale bat ere

badago, egun zaharberritu egingo dena.

Etorkizunari begira, Kultur Etxeak hiru erronka nagusiri egin behar dio aurre: haur saila suspertu, hemeroteka hedatu eta interneten nabigatzeko bizpahiru postu jarri.

Elizbarrutiko Apeztegiko Liburutegiak Kultur Etxeak bezain beste liburu gordetzen ditu bere baitan, baina honako hauek espezializazio maila altua erakusten dute. "Gurea ikerketarako liburutegi bat da, teologia fakultatearen zerbitzuan dagoena" azaldu digu Francisco Javier Querejazu liburutegi horretako zuzendariak. Zentzu honetan, teologia gaiak ondo beteta daude (Dogmatika, Eskritura Santuak, Morala, Liturgia, Kristau Arteak); baita historia (Aintzinakoa, Erdi Arokoa eta Garaikidea) eta literatur arloak ere (Literatura klasikoa, espainiarra, euskalduna eta unibertsala).

Bertan bildutako berrehun mila liburuetatik hiru mila inguru euskaraz daude. Euskal gaiak jorratzen dituztenak, berriz, zenbaitzatzak dira, liburutegiko datuak oraindik informatizatu gabe baitaude.

Apeztegiko liburutegi honetan gordetzen diren bitxiak artean 28 inkunabla daude; hau da, 1440. urte inguruan inprenta asmatu zenetik XVI. mende hasierara arte argitaratutako edizioak. Hauen arte-



geu gasteiz

"Udal artxiboa
Gasteizko oroimen
kolektiboaren
gordelekua da"

geu gasteiz

an, honakoak aipa ditzakegu: Zipriano Deunaren 'Epistolae', 1471ean Erroman kalera tutakoa; 1480an Sevillan inprimatutako Warner Rolewinck-en 'Fasciculum temporum' edota Nürenbergen 1493an bi mila ilustraziotik gora zituen Hertmann Schedel-en 'Liber Chronicarum'.

Apeztegiko Artxibo Historikoak, bere aldetik, 1540tik 1980ra bitarteko parroki-fondoak, kuria diozesiarraren 1930. urtera arteko artxiboa eta 1220a baino lehenagoko

Gasteizko Katedrala eta Armentia Kolegiatako kabiloren artxiboa gordetzen ditu bere baitan.

Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko Koldo Mitxelena Liburutegia, Gasteizko esanguratsuen artean aurkitzen da. Egun, 95.000 aletik gora daude Fakultateak dituen hiru biltegietan eta guztietatik sei mila inguru euskaraz eskura daitezke. Esperanza Iñurrieta zuzentzen duen liburutegi honen espezializazioa, Fakultatean bertan irakasten diren gaiei loturik doa: geografia, historia, artearen historia eta filologi ikasketa ezberdinetan bilduma gramatikalki zein literario sendoa (euskara, ingeles, frantsesa, gaztelera, latina, grekoa eta alemana -azken hau oraindik lizentziatuta ez bada ere-).

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ



Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industrial

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

TXUSTATABERNA

ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

Koldo Mitxelena liburute-giak Euskal Herriko Unibertsitate barruko dokumentazio zerbitzu zentralizatu eta oso erabilia den liburutegiarteko mailegu zerbitzua dauzka. Azken honen bitartez, sistema berean sarturik dagoen beste edozein liburutegikin jar daiteke harremanetan liburuak maileguan hartu zein emateko.

Datozen urteei begira, Esperanzak leku falta aipatzen du arazo larriena bezala. "Liburutegia, gehienbat, irakurketa gelatzat erabiltzen da eta ez fondo bibliografikoen kontsultarako". Irtenbidea, Arabako kanpuserako liburutegi zentral bat sortzea izan daiteke eta, dagoeneko, Nieves Cano eraikinaz hitz egiten ari dira arazo horri konponbidea emateko.

Antso Jakituna Fundazioak goi mailako fondoak dauzka bere baitan. Euskal eremuan murgildutako ekintzak burutu eta euskal gaien liburutegi bat osatzea helburu dituen fundazio honek, XVI. mendetik aurrera inprimatutako 52.000 titulutik gora gordetzen ditu. Hauen % 21'5 euskaraz daude.

Egun, "euskal kultur inprimatua ikertzeko fondo garrantzitsuenetakoa da" Carmen Gomez zuzendaria-ren arabera. Euskal literatura, hizkuntzalaritza eta irakasmetodoak aurki daitezke fondo honetan; hego Euskal Herriko lau herrialdeen foru,

ordenantza, lege-liburuak eta kode komertzialak ere kontsultagai daude fundazioan. Garrantzitsua XIX. mendeari dago-kiona da, Gerra Karlistei buruzko sail azpimarragarria-ekin.

Antso Jakituna fundazioak XIV. mendetik aurrerako hiru mila eskuizkribu gordetzen ditu eta beste 5.159 aldizkako agerkari. Azken hauen artean, XIX. mendeko 157 titulu ezberdin daude: 1808ko La Gaceta de Vitoria, La atalaya de la libertad, El liberal guipuzcoano, e.a. Agerkari guztien %30 elebidunak dira (euskara-gaztelania): Branka, Euskal Esnalea, Gaiak...; eta %7 euskaraz: Antzerti, Bertsolariya, Zeruko Argia...

Aipagarri diren beste material batzuk ere bildu ditu fundazioak. Besteak beste, XVI.

"Antso Jakituna
fundazioak XIV.
mendetik aurreko
3.000 eskuizkribu
gordetezen ditu"

geu gasteiz

mendetik gaur
arteko bilduta-
ko mila ale
inguruko
mapoteka,
14.000 bat
afixa dituen
kartel fondoak,
10.000 unita-

teko fototeka eta egungo eus-
kal pren-tsako ale guztiak.

Unibertsitate Ibilbidean kokatu berri den Udal Artxi-boa "Gasteizko oroimen kolektiboa gordetzen duen tokia da", bertako zuzendaria den Pilar Arostegiren hitzetan. Udal Artxiboko fondoak, Nafarroako Antso Azkarrak 1181ean Gasteizko fundazio kartatik hasi eta egungo udal-ak hitzartutako hainbat erabakien dokumentuetara zabaltzen dira.

Guztira 52.000 aletik gora gordetzen dira, zeinetatik zortziehun bat euskaraz dauden. Euskal Herria gaitzat daukatenak 3.500 lan dira eta Gasteizekin lotura zuzena

dutenak bost mila inguru. Baina bildumarik aipagarriena Udaletxeko akta liburuena da, bertan hasieratik gaur arte eztabaidatutako gai guztiak jasotzen baitira. XX. mende aurreko hainbat ale ere badaude, zeinen artean 1845eko Espainiako legeriaren gaineko inkunabla bat dagoen.

Arabako Artxibo Historikoa eta honi atxekita dagoen liburutegia historia, geografia, artxibogintza eta bibliotekonomia gaien inguruko hogeita mila bat alez osatuta dago, hirurehun edo euskaraz daudelarik.

Foru Aldundiko liburutegia oso berria da, lan zahar ugari eduki arren. (Fondo hauen artean inkunablaak, XVI, XVII eta batez ere XVIII. mendeko argitalpenak daude). Liburutegia XIX. mendeko azken laurdenean sortu zen, garai hartan artxibo eta liburutegi arteko bereizketa egiten ez bazen ere.

Liburutegiak berandu arte ez zuen lortu ezaguna izatea. Honen adierazle ondorengo datuak ditugu: 1932an 530 alek osatzen zuten bertako bilduma osoa eta 60ko hamarkadaren amaiera arte ez zen bere susperraldia hasi. Egungo bilduma osatzeko prozedurak hiru iturri nagusi izan ditu: gizaki pribatu- legatua, erosketa eta trukake- ta.

Edu Lopez de
Luzuriaga



Filologia fakultatekoa. ikasleen gustokoena

e.s.

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITEA:
Patata tortila • Otaratekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



e
g
m
n
e
u
a
k
o

geu gasteiz
gasteizko gazteak

Saigo Del Palacio

Agirre 19 urteko

gasteiztarak III. Ipuin eta Kontaketa Laburren Lehiaketako hirugarren

saria irabazi du bere 'Hsasoko Azken Olatua' ipuinarekin. Gaur egun,

Donostian dabil "ingurugiroarekin zerikusia duten ikasketak egiten". Aste

Santurako planik ezean, Gasteizen trankil-trankil egoteak ez dida

batere kalterik egingo uste du. Egunotan,

beraz, Gasteizen izango da.



Noiz ekin zenion idazteari?

Ez da normalean egiten dudana zerbait. Noizbehinka saiatzzen naiz zerbait idazten.

'Hsasoko azken olatua' ipuina bi esalditan labor diezagukezu?

Nire ipuinak bi gazteen arteko topaketa deskribatzen du, gaur egun edozein gautan, Euskal Herriko edozein txokotan gerta daitekeena. Bertan beraien zalantzak azaltzen dira. Nola jokatu, besteak zer nahiko ote duen... baina batez ere maitasun edo soil-soilik sexu-jolasen bila dabilzanen istorioa da.

Zein literatur mota gustatzen zaizu gehien?

Nobela atsegin zait gehien bat; bai idazteko, bai irakurtzeko.

Idazle maitagarriren izenik?

Bururatzzen zaidan bat... Quino, adibidez.

Liburu gomendagarriren bat?

La Pasión Turca.

Zer nahiago duzu: liburu on bat ala honi buruzko filme ona?

Nahiago dut filme on bat. Batez ere irakurtzen hastea nahiko kostatzen zaidalako.

Ondo idazteko:

irudimena ala lan kapazitatea?

Ondo idazteko... batez ere irudimena.

Historio bat idazteko planteamendu orokorra?

Lehenengo ideia orokor bat planteatu eta idazten hasten naizenean, ipuina "sobre la marxa" moldatu.

Badago Gasteizen euskaraz bizitzerik?

Gasteizen gutxi entzuten da euskara, nahiz eta aurrerakada nabarmena egin den azken urteotan.

Eta Donostian?

Donostian, berriz, askoz ere gehiago antzematen da euskararen indarra.

Non igaro nahi dituzu Aste Santuko oporrak?

Oraingoz ez daukat Aste Santurako planik. Hala ere, Gasteizen trankil-trankil egoteak ez nau gehiegi minduko.

Udararako planik al duzu?

Udan umeekin begirale kolonietara gustora joango nintzateke, baina oraingoz ez daukat argi.



Ingelesa,

frantsesa, alemana edota esperantoa?

Ba... alemana orain ikasten nabilen hizkuntza da. Nahiz eta oraindik gehiegi ez dakidan, nahiko gustatzen

zait. Ingelesaz jadanik nekatuta nago, eta aipatutako beste biak ez dakizkit batere.

Asteburuan ondo pasatzeko plana?

Nahiz eta nik ez dudana egiten, lagunekin kotxea hartu eta inguruko lekuak hobeto ezagutzea polita litzateke.

Nola ikusten duzu emakumeen egoera gaur egungo gizartean?

Emakumeok gizartean, nahiz eta oso penagarria iruditu, oraindik ez dugu leku egokirik. Egoera honi aurre egiteko, lehendabizi

geu gasteiz
"Garrantzitsua litzateke orain erdara entzuten den bezain beste, euskara kaleetan entzutea"
geu gasteiz

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
KUTXI
kalean

bakoitzak jarri behar
dugu zerbait gure aldetik,
oraindik kalean entzuten
baitira emakumeak
isolaturik uzten gaituzten
komentarioak.

**Zeren falta sentitzen
duzu egungo munduan?**

Faltan, faltan... gauza

asko, baina gauza bat
planteatzearen pobrezia
gehiegi dagoela esango
nuke. Beraz,
ekonomikoki berdintasun
falta edo.

Eta Euskal Herrian?

Euskal Herrian ere gauza
gehiegi. Uste dut

garrantzitsua izango
litzatekeela euskara
kaleetan, orain erdera
bezain beste entzutea.

Zer dago soberan?

Hipokresia.

*Edu Lpz.
de Luzuriaga*

itsasoko azken olatuva



geu gasteiz
Kultura

• itsasoko azken olatuva •

ondartzara iritsi den
azken olatuaren apar zu-
riak oinak kilikatu dizkit. Esnatu egin
nau.

Hemen nago etzanda, edo hobeto
esatako botata, hondarra azpian eta
eguzkia gainean ditudala. Aurrean
itsaso zabala, honantz eta harantz,
etengabe, nire burua bart gaueko
garagardoak baino gehiago nahasten
duelarik. Eseri egin naiz. Lan zaila,
hondarrak tira egiten baitit, eta bult-
za eguzkiak; edo agian, seguruenik,
alkoholaren eragina izango da.
Nahasturik nago. Pasiotxo bat egitea
erabaki dut, oinak uretan busti eta
honela ideiak piskat freskatzeko,
baina zutitzeak pereza ematen dit,
eta beldurra; zutitzean berriro lurrera
erortzeko beldurra, danen aurrean
barregarri geratzeko beldurra. Baina
hondartzan ez dago inor. Neure
buruari diot beste inori baino beldur
gehiago, edateko beharra izan nuela
onartzeari. Eserita jarraitzea erabaki
dut, eta buruan aldrebesturik ditudan
ideiak apur bat ordenatzea, begi
urdin haien jabearen izena gogora
ekartzea.

Itsasotik datorren brisa finak nire
gorputza lurrintzen du. Kanpokalde-
tik soilik, barneko aireari garagardo
eta tabako kiratsa baitario oraindik.
Ahal dudan sakonen arnasten saia-
tzen naiz, baina alferrik; nire gorput-
za ez da inoiz itsasoa izango. Berriro
etzan naiz. Kaioa batzuk dabilta
hegaran zeru urdinean. Laino multzo
bat ere ageri da. Zerbaiten itxura
ematen saiatu banaiz ere, ez dute
nire menpe jarri nahi izan. Hantxe

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

**"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN**

jarraitzen dute, laino-itxura besterik ez dutelarik. Berauen egoskortasunak bultzaturik, begiak ixtea erabaki dut. Orduan ikusi dut bart gaueko neska hura, nire ametsen untzia itsaso bakar-titik salbatu nauen neska.

Ustekabean gertatu zen dena. Lagunekin irten nintzen, ohi bezala; normalean baino goizago, halaber. Eguna hala eskatuta edo, arratsaldeko lehen orduetarako kalean ginen. Eta ez ginen bakarrik. Hondartzan harea baino jende gehiago zegoen kalean.

Beste ezer egiten jakingo ez bagenu bezala, alkohola hasia zen piskanaka-piskanaka bere lana egiten, guztion aurpegian irrifarre ergel batek adierazten zuenez. Zigarroen keak garagardolari eztarrian barrena lagun egiten zion bitartean, pizkailuaren argia piztu ta itzali zebilen, portuko faroak bezala, koadrilako kokalekua adieraziz. Hala-kote batean lurrean ikusi nuen pizkailua, hanka artean galduta. Makurtu egin nintzen hura zorigaitzetik salbatu nahian. Neska haren aurpegiarekin topo egin nuen, lurretik metro erdira. Pizkailuaren bila hura ere. Hartu eta berari eman nion. Eskerrak eman zizkidan. Irrifarre gozoarekin erantzun nion nik; alkohol kiratsez nahasturiko irrifarre inozoa. Baina eraginkorra izan zen. Argi zegoen bere buruan ere alkohola bueltaka zebilela, bestela!

...

Hanka marka batzuk hasiak dira jadanik hondarra moldeatzen. Bata bestearen atzetik, erritmikoki, bi hanka-pare uraren ertzean aldenduz doaz. Beraien aurretik bi amonatxo ilezuri. Hondar-eskultoreak. Olatua. Itsasoaren erruz bakarrik nago berriro ere; hanka markak ezabatu egin ditu. Haserretu eta zutitu egin naiz, neure

pausoak hareetan finkatzeko asmo tin-koz. Metro batzuk ibili eta eseri egin naiz. Min ematen du, eta zuloa zabaltzen doa... Maitasuna. Kaka zaharra!



Gosea da! Ez dut mokaurik jan azken 18 orduetan. Kriston gosea! Une batez makurtuta egon naiz. Min gutxixeago daukat. Eskua poltsikoan sartu eta 650 pezeta atera ditut. Tabernaren batean bokadilo bat jateko asmotan, Alde Zaharrerantz zuzendu ditut nire pausoak. Pauso batzuk eman eta geratu egin naiz. Neure buruarengan erreparatu dut: oinetakoen kolorea ezin deskriba daiteke, lehen zuriak ziren arren. Praka beltzak ia-ia belaunetaraino jasoak eta gogor-gogorak, eta alkan-dora koadroduna... zin egingo nuke lehen botoi gehiago zituela! Guzti hau apaintzen zetazko oihalar marroi eta fin bat. Eskuekin kentzen saiatu naiz, baina ezinezkoa egin zait harea arropetatik aska-tzea. Itsatsita dago. Benetan itxura eskasa! Eskerrak ez dudaneure aurpegia ikusten! Ileak orrazten ahalegindu naiz, baina badirudi ez dutela burutik gertu egon nahi.

Itsasoari azken begirada bota eta hondartzatik alde egin dut.

Atzo gaueko eszenak irudikatu ditut Alde Zaharrera heldu naizenean.

Zeruko mantu beltzean izar gutxi batzuk baino ez ziren ageri. Lainoen artetik irtetzeko beldur ziren. Gure ahotatik ere hitz gutxi atera zen lehen une haietan. Taberna txiki batetara sartu ginen. Bi garagardo eskatu ondoren, zigarro bat eskaini zidan, eta ezer esan gabe hartu nion. Urduri nengoen. Poltsikotik pizkailua atera eta zigarroa piztu zidan. Ondoren bere zigarroa hurbildu zuen sua. Berari begira nengoela ohartu zen, eta irrifarre egin zuen. Dizdira berezi bat zuen suaren babesean. Zoragarria zen. Desiratzen nengoen nire ezpainak bereekin elkartzeko, baina lepoa harritzkoa nuen. Ez nintzen musu ematen ausartzen. Eta bozgoragailuen burrunbaren gainetik, bere ezpainetan "emouxtaxux muxutxuek" entzun nuen, guztien ahotan zebilen kanta bat zela ahaztu, eta niri belarrira murmu-xaturiko esaldi ezti eta inzitagarri bat iruditu zitzaidan. Inozoa! Muxu eman nion. Ez zuen harridura aurpegiarik jarri, zorionez, eta bere ezpain beroak nireekin dantzatzen hasi ziren.

Tortila bokadilo bat eta koka-kola bat eskatu ditut. Tabernariaren begiradak gogorarazi dit oso itxura egokia ez dudala. Bokadiloari bi horzkada eman eta komunera joan naiz, bidean ahokoa murtzikatu ezinik. Uraren txorota ireki eta aurpegia garbitu dut. Gero, burua azpian sartu eta minutu pare bat egon naiz ileetan nuen hondar guztia kendu nahian. Txorota itxi eta euripean eskuoihalaren bila hasi naiz. Ez dago eskuoihalik. Haren faltan, alde batetik bestera burua astintzen hasi naiz, baina ganbarako alkohol ziztadak direla eta, gelditu egin behar izan dut. Esku biekin astindu ditut ileak. Aurpegia txukuntzeko, ispilura zuzendu dut nire begirada. Hala-kote batean, ispiluan isladaturik ikusi dudana hormako mantxa beltz batek

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



izena eman **eek** n!

Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

Jose

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00

**EUSKAL OKELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

• itsasoko azken olatua •

kautibatu nau. Hormaruntz abiatu naiz. Errotulagailu beltzez idatziriko lau lerro:

Eguzkirik ez denean,
zuhaitza dugu euripean babes.
Maitasunik ez denean,
sexua dugu bakardadetik ihes egiteko tresna.

Azpian sinadura: "Carpe Diem"

Bitxia.


Komunetik irten eta barraraino heldu naiz. Koka-kola trago bat edan eta bokadilo hotza ahoan sartu dut. Paretako esaldia bezain hotza. Baina atzokoaren ondoren... ez al du bada arrazoi osoa "Carpe Diem" deritzon horrek? Kezka ta galdera ugari sortu zaizkit. Urduritasuna eta ezinegona. Bakardadearen presentzia inguruan bueltaka dabilkidala somatzen dut, eta okerreña da ez dakidala bera non aurkitu. Okerrago oraindik, ez dakit berriro ere bakardadetik ihes egiten lagundu nahiko ote didan, berriro ere nire zuhaitza izan nahiko duen. Carpe Diem... Kaka zaharra! Zertara-



ko! Hurrengo egunean bakardadearen zulo beltzean gehiago ondoratze-ko?

Alde Zaharretik irten eta hondartara heldu ginenerako, gure barneko sua poro guztietatik kanporatuz zihotan. Bidean urduri samar nihoan; ez nekien ziur zertaraino iritsiko ginen, baina batez ere, berak zer nahiko ote zuen galdetzen nion neure buruari. Eskutik xamurkiro heltzen nion, hitzen bitartez adierazi ezin niona, kari-zia haien bitartez azaldu asmoz. Hondarrez eta urez beteriko ohe itzelera hurbiltzen gindoazen heinean, nire kezka desagertuz zihoozen. Are gehiago, txaketako poltsikotik preserbatibo bat atera eta, ezer esan gabe, praktako atzeko poltsikoan sartu zidanean. Argi neukan zer nahi zuen; zer nahi genuen. Erantzuna jasoa nuenez, bere atzamarren goxotasuna utzi eta gerrian jarri nion eskua. Gure pausoak hareetan ondoratzen somatu genituenean geratu ginen, geldik, isilik, une batez bata besteari begira, plazerraren ateak nork lehenago ireki itxoiten.

Eseri orduko hasi ginen gorputzak laztantzen, eta laster ziren bata bestearen gainean gure larru biluziak. Ilargi betearen berotasunean une ahaztezinak igaro genituen, olatuen joan-etorri kilikariarekin batera. Mundua gu bion tartera mugatuta zegoen, denbora geldituta. Baina ez zen guztia bazkalosteko pelikuletan bezain zoragarria izan. Horietan ez da harea gorpu-tzeko atal guztietatik sartzen ikusten, eta gainera edozeinek ikusteko eran geunden, baina ez zuen axola, beste leku baten faltan, Neptuno jainkoaren erreinua baitzen gure aukera gogokoena. Neu nintzen jainkoa, neu zoriontsuena. Betirako egon nahi nuen sirena eder harekin, begi



urindun perlarekin. Maite nuen.

...

Amaitu dut bokadiloa. Poltsikoan dudana diru apurra atera eta barra gainean utzi dut. Kamareroari kobratzeko esan diot. Itxaroteko. Eskuetan tortila bokadilo bat eta koka-kola bat daramatza barraren beste puntara. Aterpe bila etorritako beste ardigaldu bat. Kobratzeko eskatu dio. Ahots ezaguna. Barra gaineko txanponekin jolasteari utzi eta burua jiratu dut. Bera da. Ikusi nau. Ezer esan gabe, begira geratu gara. Atzokoaz oroitu naiz. Txikitan entzundako ipuin zoragarri bat.

Hemendik aurrera bi pertsona ezezagun izango garela suposatzen dut. Berak ere bai, seguraski. Ez dut uste inoiz atzokoa errepikatuko dugunik. Maite nuen, itsasora iritsitako azken olatua.

"Carpe Diem"

Ipuina: Saioa del Palacio



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



ultur

Herrikoiaaren gomendioa

Letrak kalekantoitik

Anjel Lertxundi

Alberdania argitaletxea.

Irun, 1996

Anjel Lertxundi (Orio, 1948). Maisu eta Filosofia eta Letra ikasketak egin zituen Donostian, Erroman eta Valentzian. Irakaskuntzan eta kazetaritzan aritu zen hainbat urtez. 1970. urtean aritaratu zuen lehen liburua: Hunik arrats artean ipuin-bilduma. Harrezkero, nobelaz eta ipuin-bildumaz gainera, artikulugintza, saiakera eta haur eta gazte literatura landu ditu. Bereak dira, besteak beste: Goiko kale (1973); Aise eman zenidan eskua (1979); Hamaseigarrenean, aidanez (1983); Carla (1989); Kapitain Frakasa (1991); Otto Pette (1994); Piztiaren izena (1995) eta Azkenaz beste (1996).

Lertxundik liburuan barrena galtzeko



gonbitea luzatu digu obra honetan. Hizkuntzaren korpusa du aztergai: ahozko tradizioa, idatzizkoa, Euskal Herrikoa eta Europa osokoa aurkitu eta ifrentzuz jarri eta azpil berriak, lotura ezkuatuak eta azalpen sugerentziak beteak ematen saiatu da. Gai zaharrak, betiko eta betirako gaiak, era moderno eta gustagarri batean ekarriak... Ezinbesteko lanabesa, ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren abenturetan murgildu nahi duenarentzat.



**Apirilaren 20an
IGANDEA**

**GAZTELUAREN
GURUTZEA**

irteera:

- goizeko bederatzi
Ferdietan, Prado kalean,
Txapela tabernaren aurrean

itzulera:

- hiru Ferdietan

INFORMAZIO GEHIAQO:

22 52 67
JOSEBA ARRIETA

agenda

HITZA KULTUR ETXEAN

**Koldo Amestoyren
URDINOLA ipuin**

kondaketa

apirilaren 17an, arratsaldeko 8etan

**Nandus en BIDEOA
OSTATUA BAINO
HOBEAGOA DA bideo**

emananldia

apirilaren 18an, arratsaldeko 4etan


HITZALDIA

**Euskaltzaindia: azken
arauak eta gomendioak**

Landatxo Giarte Etxean, apirilaren
17an, arratsaldeko 7,30etan

HIZLARIA: **Patxi Goenaga euskaltzaina**

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrontea:

--	--	--	--

entitatea

--	--	--	--

bulegoa

--	--

kontrol
zkia

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53



RUGBY: irolak

munduko kirolik zintzoena

RUGBYA, beste kirol asko bezalaxe, Ingalaterran sortu zen XIX. mendean. Ordurako ingelesek futbola asmatua zuten, eta rugbya bera futbol partidu batean jaio zen. Norgehiagokan ari zirela, jokalaria batek eskuekin sartu zuen gola, eta horrelaxe sortu omen zuten rugbya. Izena aukeratzeko, ez zen inolako buruhausterik izan, eta Rugby izeneko hirian gertatu zenez, bitan pentsatu gabe, rugby jarri zioten izena. Futbolarekin gertatu zen bezala, berehala zabaldu zen lau haizetara, eta urte batzuk beranduago horien berri izan genuen gurean.

Araban rugby talde bakarra dugu egun, Gaztedi rugby taldea alegia. Aurten 20 urte bete ditu Gaztedik, eta horren ondorioz, Gamararaino hurbildu gara bere berri izan nahian. Han Gaz-



geu gasteiz


"Rugbylariak ez du inoiz sosik irabazi"

geu gasteiz

tediko arima eta bihotza den Kepa Anzinekin egin dugu topo: "Azken 20 urteotan Gamarra izan dugu etxea, halere, ikusten duzuenetz, etxez aldatzen ari gara, eta hemendik aurrera Lakuako zelai berrian jokatuko dugu". Lakuan Gasteiz

Rugbya eta futbola anaiak ditugu. Biak jaio ziren Ingalaterran joan den mendean. Handik lau haizetara zabaldu ziren, baina harrez gero ibilbide ezberdinak egin dituzte. Esan genezake rugbya futbola baino zintzoagoa izan dela bere ibilbidean. Ibilbide zintzo horri eutsiz, Gaztedi rugby taldekoek 20 urte bete dituzte aurten. Zorionak, beraz, Arabako rugby talde bakarra den Gaztediri.

ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a



Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.

berria eraikitzen ari da, eta hantxe, Telefonikaren erai-kuntza berriaren ondoan Gaztedikoek izango dute egoitza aurrerantzean, "datozen urteotan zelai berriaren inguruetan 60.000tik gora lagun biziko dira, gure lana ikusiko dute, eta batzuk guregana hurbilduko dira. Gamarran hiritik at geunden, eta ez zen horrelakorik gertatzen; gasteiztar askok eta askok ez zeukaten gure berririk".

BOST NAZIOAK

Esan ohi denez, rugbya munduko kirolik zintzoena dugu. Zelaian izaten diren borrokak ikusgarriak baditugu ere, maltzurkeriarik gabe ari-tzen dira jokalariek, eta futbole-lean ez bezala, epaileak erabakitakoa ontzat ematen dute beti. Partidua bukatu bezain laster, galtzaileak zorionak ematen dizkio irabazleari, eta biak elkarrekin abiatzen dira zelaia-aren ondoko tabernara.

Munduko rugby txapelketa-rik ospetsuena "Bost Nazioak" dugu. Neguko azken hila-beteetan Gales, Eskozia, Irlanda, Frantzia eta Ingalaterra elkarren arteko lehiari-tzen dira urtero.

Norgehiagoka horietan jokalaririk onenek jokatzen dute, eta gezurra badirudi ere, orain dela gutxi arte sosik jaso gabe, musutruke. Halere, egun kirola telebistaren men-pean dago, eta diru iturri berri horrek profesional bihurtu du rugbya Frantzian eta Ingalaterran. Kepa Anzinek dioenez,

"rugbylariak ez du inoiz sosik irabazi. Munduko jokalaririk onenak lantegietatik irten, eta entrenamenduetara joaten ziren. Hori aldatu den arren, Galesen, Eskozian eta Irlandan gertatzen da oraindik".

ikusitako askok, nagusi-txoek batez ere, gogoan izango dituzue oraindik larunbat arratsalde haiek. Etxeko

ziak eta Irlandak Ingalaterra gaitzitzen izaten dute helburu, eta harmailak zaletu sutsuez beterik egoten dira".

ARO BERRIA

"Bost Nazioak" alde batera utzita, Arabako rugbyaz mintzatu gara Gaztediko entrena-tzailea den Kepa Anzinekin. Gasteiztar hau Gaztediko entrena-tzailea izateaz gain, Euskal Herriko selekzioarena ere badugu, eta bere ustetan, "rugbyak kirol eskaintza izugarriari egin behar dio aurre. Rugbya maltzurkeriarik ez badago ere, norgehiagokan jo, bultzatu eta zapaltzen zaituzte; noski, irabazten duzunean, jipoia ahazten duzu, baina galduz gero, gogorak izaten dira minak eta kolpeak. Horren ondorioz, gazte askok uzten diote rugby jokatzeari".

Hala eta guztiz ere, Gaztedi-koak oso baikor agertzen dira etorkizunari begira, "gure urtebetetze eguna ospatzeko eta zelai berria inauguratzeko nazioarteko partidu bat anto-latu genuen Lakuan. Bertan 2.000 lagun inguru bildu ziren, Gamarran ez litzateke inoiz horrelakorik gertatuko, hurrengo egunean, 20 bat mutil koskor berri agertu ziren entrenamenduan, hortxe dago gure etorkizuna". Hau-xe duzue benetako kirola, gizon-emakume arruntek egiten dutena, milioiak zer diren ez dakiena... Munduko kirolik zintzoena: Rugbya.

✍️ Ismael Diaz de Mendibil



edorta sanz

geu gasteiz

"Rugbyak kirol eskaintza izugarriari egin behar dio aurre Araban"

geu gasteiz

Arestian aipatzen genuenez, kirola telebistaren menpe bizi da. Egun adibidez, "Bost Nazioak" etxean lasai asko

egongelan, kopa eskuan, zigarro ederra ahoan, eta rugbya telebistan. Egia esan, arratsaldea ondo pasatzeko erretzea eta edatea ez ziren beharrezkoak, telebistan rugbya ikus-tea, berriz, bai. Egun ez dago horrelakorik egiterik, baina Gaztedi taldekoek ederto bilatu diote horri konponbidea: "Taldeko batzuk beti joaten dira Ingalaterrara partiduren bat ikustera. Esaten dutenez, giroa harrigarria da. Rugbya erregea da Ingalaterran, eta kirolaririk onenak rugbylariak dira. Gainera, Gales, Esko-

EDAN • JANEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Jagoba Elortza

'BADAÍOTZ' TALDEKO KIROLARIA

Eeeup p!!

Orain dela hilabetea, Ingalaterran jokaturako munduko goma gaineko sokatira txapelketan, Arabako Badaíotz eta Barrundia taldeak parte hartu genuen Euskal herriko beste talde batzuekin batera.

Txapelketa bi zatitan banatu zen: batetik nazioartekoa eta bestetik klubean artekoa. Halako goi mailako txapelketetan gertatzen den bezala etxeko taldeek irabazi zituzten saririk gehienak. Izan ere, herri bakoitzean goma ezberdinen gainean tiratzen da eta, ondorioz, norberak prestaturiko txapelketa eskuratzen du gehienetan. Hala ere, euskaldunok nahiko emaitza onak lortu genituen, batez ere, emakumeen atalean. Britainia eta hemengo taldeek izan ezik, gainontzekoek normalean ez dute gauza handirik lortzen.

GIRO APAZTA

Kirol lehia alde batera utzita, Torbay hirian izugarritzko giroa bizi izan genuen. Herri desberdinetako talde guztien arteko harremanak onak izan ziren. Nahiz eta tiraldietan izugarritzko lehia izan, hortik kanpo bizi izan genituen esperientziak ederrak izan ziren. Azken eguneko afarian, esaterako, partaide guztiak hotel batean bildu eta jai giroan izan ginen biharamunera arte. Aipatzekoa da irlandar eta eskoziarrek euskaldunekiko sentitzen duten adiskidetasuna: beraiekin sortutako harremana berezia izan zen.



Han bizi izan genuenak hemengo komunikabideetan zein oihartzun eskasa izan zuen ikustea penagarria da. Etxera itzuli eta gure herrian inork ez zekien munduko sokatira txapelketa jokatu zela. Bertan ehun euskaldun baino gehiago egon garela kontuan harturik, gezurra ematen du gure herrian izan duen oihartzun txikiak.

Gure komunikabide eta instituzioek futbola eta saskibaloia bezalako kirol profesionalizatuak laguntzen dituzte eta hain ezagunak ez diren kirolak poliki-poliki desagertu egin daitezke. Kirol indartsu horiek bultzatzeaz gain, gainontzekoak ere indartu behar direla uste dugu eta, batez ere, gure kulturaren barnean daudenak. Jokabide horren ondorioz, beti gure poltsikotik jarri behar izaten ditugu gastu guztiak ordaintzeko dirua. Baina, hau guztia horrela izan arren, gure taldeak aurrera jarraituko du gogo eta indar guztiekin, euskaldunonak diren kirolak bide onetik eramanez, mundu guztian ezagunak izan arte.

Bukatzeko, hemendik gonbidatzen zaituztegu herri kirolean murgil zaituzten. Benetan, merezi baitu gurea den kultur atal honetan parte hartzea.

Berri motzak...

HIRU ESPEDIZIO ARABAR

Hile honetan hiru espedizio arabar Himalayan ditugu. Bi Dhaulagirirako bidean, eta hirugarrena Cho-Oyu-ko gailurra heldu nahian. Begibistan denez, lurralde txikia den honetan mendizale on eta ugari ditugu.

BASKONIA

Lerro hauek idaztean, ez dakigu Baskonia txapelketa lortzeko play-offetan sartu den. Dena den, asko aldatu behar dira gauzak, bere onera itzultzeko. Aurten Manel Comasen taldeak porrot egin du behin eta berriz. Kerejetak, talde hobea egin nahian, Ramon Rivasek eta Marcelo Nicolak alde egiten utzi zituen; Liga bukaeran onenekin ez badaude, emaitza kaskarra izango da.

AITOR ARREGI

Orain urtebete, Aitor Arregi Deportivo Alaveseko hamaikakoan egoten zen igandero. Aitor Arregik goi postuetan jarraitzen du Eibar taldearekin batera. Euskarri taldeko entrenatzailea den getariarrak ez ditu lagunak ahazten, eta Eibarrek jokatzeko ez badu, Mendizorroztako harmailetan egoten da.

ARABAKO KUTTUNENAK

Gimnasia kirol gogorra da. Martxoaren 21ean Arabako kirolaririk kuttunenak Principal Antzokian bildu ziren. Radio Vitoriak antolatzen duen jaialdian Arabako kirolaririk onenak egon ziren. Halere, saridunak izan arren, Tania Lamarcari, Lorena Gurendezi eta Almudena Cidi Federazioak ez zien Gasteizera etortzeko baimenik eman. Saria lesionaturik dagoen Estibaliz Martinezek jaso behar izan zuen. Arabako gimnastek jo eta ke jarraitzen dute lanean.

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrearnean iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO

C/COMANDANTE IZARDUY, 18. TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

usika



Beggars Banquet .

The Rolling Stones, 1968.

1967. URTEAN, Mick Jagger-en eta Keith Richards-en bala galduak modan zegoen psikodelian murgilduta zeudela disko bat kaleratu zuten. Emaizta? Eskasa. Hala ere, garai hartako "Their Satanic Majestis Resquets" lp-a ez zen txarra atera, ezta gutxiago ere, baina Stones taldea eskainitakoa baino lan askoz sendoago bat burutze-ko gai zen.

Zorionez (Rock and Roll maitaleentzat, jakina!) bosko-teak laster jo zuen berriro ere lehengo urteetako soinu bel-tzetara. Dena den, hemendik aurrera ezer ez zen hasieran bezalakoa izango. Taldea bere estiloari ongi baino hobeto lotzen zitzaion eta horrelaxe azaldu zuten "Jum-pin" Jack Flash" singlearen bidez. Azken hau ondorengo

Beggars Banquet zoragarria-ren aurrerapena baino ez zen.

Rock and roll-ean, rythm and blues-ean eta country-an geldituta genituen The Rolling Stoneseko lagunak: erritmoak ederto menperatuta eta musikalariak osatuta. Ondorioz, 68ko lan honetan ez zegoen ezer soberan.

Bi abesti, berehala, klasiko bilakatu ziren: "Sympathy for the Devil" eta "Street Fighting Man" (68ko Maiatzeko gertakizunekin bat egiten zuena). Eta gainerakoak? Den-denak ahaztezinak.

"Parachute Woman" kantak rockaren indarrak bete zuen betiko blues-a. "Stray Cat Blues" abestiak punturik gorenera eramane zuen Jagger eta lagunaren probokazioa. "Factory Girl" eta "No Expectations" ezkie diskoaren minutu lasaienak ekarri zituzten. "Dear Doctor" eta "Prodigal Son" izan ziren disko horretako kantarik

Gaurkoak eta

Hemendik aurrera GEU GASTEIZ aldizkariak aukera ezinhobea eskainiko dizue Rock and Roll-era heldu berriak zareten guztioi. Hilero, gure musika orrietan, gaurkotasuneko albisteen eta diskoen ondoan, lan mitiko batzuen erreseina topatu ahal izango duzue: bai hemengoak, bai Euskal Herritik kanpokoak ere. Betikoak, klasikoak. Eta hilabete honetan, atal honi hasierarik onena eman nahian, disko bakar bat aurkeztu beharrean... HIRU!! Ez galdu!

blues-enak eta "Sig-Saw Puzzle" eta "Salt of the Earth", berriz, handienak.

Keith Richards bikain kitarra lanetan; Jagger ahotsa beti menperatuz, Brian Jones bere mila musika tresnez abestiak dotoretuz eta boro-bilduz, Watts eta Wyman sekzio errikmitoari trinkotasuna ematen. Osagai hauekin guztiekin "Beggars Banquet" diskoak Ohorezko Matrikula-koa baino ezin zuen izan.

Eta rock and rollaren lan mitiko honi ezer falta bazi-tzaion, Decca argitaletxearen zentsura ere jasan behar izan zuen. Jatorrizko azala (argazkian ikus daitekeena) gaitzi-ritzirik gertatu zen. Horren orde, kolore bakarreko hon-doa taldearen eta diskoaren egileen izenenak agertzen zituenekoa kaleratu zuten.

The Stooges .

The Stooges, 1969.



ORAIN hogeita zortzi urte, The Stooges-en lehendabizi-ko lp-a kaleratu zenean, oso lagun gutxi jabetu zen lan haren garrantziaz.

The Stooges-eko kideak ez ziren lorez apaindutako hippy horietakoak. Ez zioten mai-tasun gozoari abesten, ez zuten garai hartako jaialdi erraldoietan parte hartzen (inork ezagutzen ez zituela-ko, seguruenik). Lau mutil dira, gaur berrogeita hamar urte inguruan dabilzanak.

Euren musika jaio zireneko hiria bezalakoa zen: zikina, pozoindua eta herdoildua. 60eko hamarkadaren bukae-ran zaila egiten zitzaion en-tzulegoari The Stooges-en soinu latzak ulertzea. Detroit-eko taldeak aurrerantz egin-



PSIKOLOGIA ETA LOGOPEDIA ZENTRUA

✓ HELDUEN ETA HAURREN PSIKOLOGIA

✓ HIZKUNTZ ARAZOAK

✓ AHOTS ARAZOAK

✓ IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Gasteiz Hiribidea 46 - 1.esk
220136 GASTEIZ

G
GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

betikoak

dako urratsa handiegia zen entzuleentzat; luzeegia, behar bada, bere garaikide lasaiek ulertzeko. Eta hor datza, bada, disko honen benetako garrantzia. Lau lagun hauek, beraiek jakin gabe, zazpi urte geroxeago jaio behar zuen mugimenduaren hazia ereiten ari ziren: punk-rock estiloarena, hain zuzen.

Sex Pistols-ek grabatu zuen "The Stooges" diskoaren B aldean zabaltzen zuen kanta: "No Fun". Besteak beste, Damned, Las Vulpes ("Me Gusta Ser Una Zorra/I Wanna Be Your Dog") edota Guns 'n Roses izan dira The Stooges-en abestiak berreskuratu dituzten beste izen ezagun batzuk.

Bigarren lp-arekin ("Fun House") Detroit-ekoek lortu zuten lan osoago bat burutzea, hala ere, lehenengoak ekarri zuen freskotasunak eta osatu gabeko abesti haiek, jadanik, bereganatuta zeukaten rock and roll historian ohorezko lekua.

Lau urte ondoren, taldearen desagerpenarekin batera, The Stooges-en abeslariaren mitoa eraikitzen hasi zen: Iggy Pop-ena, hain zuzen ere, baina hau ondorengo beste istorio bati dagokio (nahiz eta The Stooges-en "I Wanna Be Your Dog" izeneko kanta nahitaezkoa izan Iggy-ren agerraldi guztietan)

Hueco ,

Ancha Es Castilla,

1993.



INOIZ baino talde gehiago sortu dira Euskal Herrian azkenengo hamar urte hauetan. Batzuk maitatuak gertatu dira, beste batzuk, zoritxarrez, ahaztuak. Eta azken hautakoa da, hain zuzen, Ancha Es Castilla talde Beasaindarra: bi lan dotore osatu duten arren, entzulegoak ez dio inoiz merezi duten arretarik eskaini. Diskoa gutxi saldu, kontzertu emanaldi gutxi, abestiak leku urritara zabaldu... Horrela gaitza gertatzen zaio edozein musikariri aurrerantz jotzea.

Gaur egun, Beasaingo laukoteaz ez dugu inolako berririk, baina "Hueco" lan honi ohorezko lekua eskainiko diogu gure diskotekan. Zergatik? Inork baino lehenago meztizaiari ekitzatik, bere alaisatuna hedatzeagatik eta euren ironiak behin baino gehiagotan irribarre eginarazi digulako. "Tú al Monte y Yo a la Playa", "Todas mis Penas", "Zapatos Verdes" edo "Cuando Vuelvas de Bilbao" abestiak ez dituzula ezagutzen? Galdetu zeure diska-dendan ea "Hueco" diskoaren alerik geratzen zaien oraindik. Ez zara damutuko.

Txabi Arnal Gil

AXULAR MUSIKA anokulari

Skank 'O samba pocone'

Sony-1996



BRASILDIK DATORREN MESTIZAJEA

Brasilen ia hiru milioi disko saldu dituzte. Formula zein den? Futbolak sortzen duen pasioa, gorputz liraineko neskak beren bideoetan ("Garota nacional" Brasilen eta USAn zentsuratua), bertako erritmoak, reggae-a, ska apur bat eta izugarritzko martxa. Koktel horrekin mundu osoko merkatua bereganatzeko prest azaldu dira. Baina garrantzitsuenaren euren zatia ez da garaipen komertziala, baizik eta musikalki aberastea eta beste lekutako kulturekin harremanak lortzea. Ideia horixe garatua dute dagoeneko Mano Negra bezalako taldeek. Horregatik guztiagatik, "O samba pocone" entzutean Manu Chaok zuzentzen duen talde frantsesa antzematen da. Samuel Rosa, Skank taldeko gitarrajole eta ahotza, Manu Chaoren lagun egin zen 1992an Mano Negrak Brasilengandako biran. Samuelek berak onartu izan du frantsesen "Casa Babylon" diskoak eragin handia izan duela "O samba pocone" sortzerakoan, eta ez da harritzekoa Manuren laguntza izan baitzuten.

Beraientzat musika entretenigarria egitea ez da musika leloa egitea. Gauzak zalantzan jartzeko balio behar dute kantuek. Brasilen bizitza nola ulertzen duten, egunerokotuna nola bizi duten eta, azken batean, Brasilengandako ikuspegi bat eskaintzen diete entzuleei Skank-ekoek. Arazoa ospearekin sortzen da. Izan ere, azkenaldian, taldearen ikuspegi partzial bat baino ez da agertzen, hein handi batean hirugarren disko honetan azaltzen diren letren erruagatik: "Ez dugu futbolaz eta emakumez soilik hitz egiten" aldarrikatzen du Samuel Rosak. 1994an argitaratutako "Calongo" lanarekin milioi bat kopia baino gehiago saldu zituzten eta letrak indartsuagoak ziren.

Edonola ere, Brasilengandako, urte askoz, futbol estadioak izan ziren jende aurrean iritziak agertzeko modu bakarra. Diktadura garaian, futbol zelaiak psikodrama bat bihurtu ziren, pertsonen beren ari-mak kanporatzeko lekuak ziren, eta Skank-ekoek fenomeno kultural horretan parteide izan ziren. Eurak futbolzale porrokatuak dira, Brasil osoa bezala. Txilen erreperorioaren erdia gaztelaz kantatu zuten eta emaitza ona lortu zuten, agi denez. Hemen ere beste horrenbeste egingo dute.

KORKOZEN97

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEBE

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

Pío XII.a kalea, 7. behe
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

1997ko apirila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

gasteiz
gasteizko zerbitzuak



urrak

Afrikarren egarri eta gosearen bukaera harrigarria

Lorea Zurimendi

Egunkari, telebista eta irrati guztietan berri txundigarri bat zabaldu da: Afrikako ur eta jakien eskasia amaitu da! Lehen Afrikako txiro gizaioak egarri eta gosetuta zeuden: sendagairik gabe, txabola zahar eta zulatu batzuetan bizi ziren. Baina, bat-batean, San Viator ikastetxeko mostrongoek munduko boterea eskuratu dute, zenbait trikimailu sismagarriren ostean. Baina zer nolako irtenbideak asmatu dituzte San Viator-tarrak Afrikara janaria eta ura eramateko? Nondik lortuko dituzte sendagaiak, arropak eta jostailuak txiroenentzat? Caldera haven guztien erantzunak irakurtzen badituzte liluratuta geratuko zarete. Adi irakur itzazu, beraz, ondorengo lerroak.

Izar txikiak erabiliko nituzke jendea, janaria edo sendagaiak leku batetik bestera garraiatzeko. Nire aginduetara egongo lirateke: azkarrago ibiltzeko "Azkar!" esango nuke eta gelditzeko "Geldi!". Umek izarrekin jolastuko lukete eta festa haundiak prestatuko lituzkete. Era berean, notak jango lituzkeen bibolin bat eramango nuke. Horrela, notak tomatearekin, notak patatekin eta antzeko gauzak jango lituzkete. Bai gozoa!

Itziar P., 11 urte

Afrikaraino iritsiko litzatekeen hodi sistema haundi bat eraikiko nuke. Hortik jakiak eta ura bidaliko nituzke. Hara ailegatzean inurriek zama bere sorbaldan jarri eta hartzaileengana eramango lukete. Hau gutxi balitz, onuragarria litzateke herrialde txiroetan atmosfera artifizial bat sortzea. Jendea gosetzean, "janaria nahi dut" esan eta janaria zerutik eroriko litzateke. Afrikarrei laguntzeko ere, makina berezi bat asmatuko nuke, zeinarekin herrialde ezberdinetako arropa

zaharrak sartu eta kolore ezberdinetako kotxeak sortuko liratekeen.

Asier G., 11 urte

Fruituak, panpinak eta arropak emango lituzkeen zuhaitz bat sortuko nuke. Bero handiko egunetan, zuhaitzak ur fresko eta gozoa emango luke. Bere hostoekin



sendagaiak egingo lirateke eta bere enborrekin etxeak.

Pedro, 10 urte

HEGOALDE
euskaltegia



matrikula
zaitez!

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artibau lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu
Trav. Norte, 16 pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84



Arte Ederrei buruzko Sailik
zabalena ezagu ezazu
behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatzkiloak	olioak
akwarela	kaballetreak	etabar

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

Nik Afrikan iturri magiko bat jarriko nuke eta iturri horrek etengabe ura eta janaria sortuko lituzke. Denok ondo lo egiteko eta ondo bizi izateko etxe handi bat ere eraikiko nuke. Era berean, hodei batek janariak sortuko lituzke eta putzu batek beti ura. Igogailu magiko bat ere gomendagarria ikusten dut. Horrela guk gauzak hor sartu eta Afrikan agertuko lirateke.

Aitor M., 11 urte

Afrikarrei laguntzeko makina bat ekoiztuko nuke, hegan eta igeri egingo lukeena. Makinak itsasoak zeharkatuko lituzke, edariak eta janariak mundu osoan banatuz. Aldi berean, Gasteizen lasterketak prestatuko nituzke hilabetero dirua jasotzeko, eta bi hilabetero ginkana bat.

Naiara M., 11 urte

Partiduak prestatuko nituzke BASKONIA CHICAGO-BULLS en aurka edo ALAVES, BARCELONA edo REAL MADRIDen kontra. Kirol ekintza hauekin diru nahikoa lortuko nuke afrikarrei laguntzeko.

Aitor S., 11 urte

Izotzezko mendi haundi bat eramango nuke Afrikara bentiladoreekin. Gasteizen katapulta haundi bat eraikiko nuke, bertan janari mordoak jarri,



salto egin eta... Plas! janari guztia Afrikara iritsiko litzateke.

Itigo, 10 urte

Antzerki lan bat antolatuko nuke. Horrekin lortutako dirua txiroei banatuko litzaieke. Aldi berean, onuragarria litzateke

gasteiztarrok barau egitea. Soberako janaria eta arropak kaxa batean sartu eta Manos Unidas edo Caritas-era bidaliko nituzke.

Unai R., 10 urte

Jendea donatiboak ematera behartuko nuke. Eta ematen ez dutenak gartzeleratu egingo nituzke.

Arkaitz, 10 urte

Ortzadarrarekin hemendik Afrikara zubi bat eraikiko nuke, txirrista moduan funtzionatuko lukeena. Zubi horretatik liburuak, panpinak, jokuak, ura... bidaliko nituzke Afrikara.

Imanol, 10 urte

Kantintzora batekin ura eramango nuke Afrikara, hegazkin haundi batean. Hodei asko eramango nituzke basamortura ura eta janariak txiroei emateko. Eguzkia soberan daukatenez, denboralditxo batez, eguzkia handik urrundu egingo nuke.

Sergio, 10 urte

Floridako altxorra !

35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

VICTOR CELADA

Bateriajole gasteiztarra aitaren pausuak jarraitzen ari da.

IAZ Garirekin diskoa grabatzen eta gero egin zuten giran ibili ondoren, bere lehenengo diskoari ekin dio aurren. Principal Antzokia aukeratu zuen eskenatoki bezala, eta goi mailako musikariak taldea osatzeko: Iñaki Salvador donostiarrak pianoan, Javier Colina iruindarra kontrabaxuan, Andrej Olazwio poloniarra saxoan.

Horiek guztiak otsailaren 21ean bildu ziren eta kontzertu zoragarria eskeini zioten hurbildu zen jende urriari. Dena den, Victorren eta bere 'taldekideen' jazzak, klasikoa batzue- tan eta zertxobait azkarragoa bestee- tan, giroa ederto berotu zuen kontzer- tu on hartan. Orain diskoa noiz kale- ratuko zai

geratuko gara, Victor Ce- ladaren pausuak musika munduan noraino hel daitezkeen jakiteko.

arg.: joan franko



Gasteizko musika pil- pilean

'SALVATE SI PUEDES' ETA 'BETAGARRI'REN LAN BERRIAK

Mil A Gritos disko zigilua lanean hasi zenean argi utzi zuen bere eginbeharra: hemengo taldeei laguntzea, eta ahal izanez gero haien diskoak bultzatzea. 'Flitter' talde tafallarraren lanaren ondoren, bi talde gasteiztarrei dagokie orain txanda.

SALVATE SI PUEDES.

Boskote hau ez da ezezaguna, 1992an hasi baitziren jotzen. Hortik aurrera gauza anitz egin dute, baita maketa kaleratu ere ("Salvate si puedes", 1993). CD-a argitaratzea zer den bada-

kite. Izan ere, Desterrados tal- dearekin batera "Con nosotros los que quieran, contra nosotros los que puedan" lana kalera- tzeko aukera eman zien Erne argitaletxeak.

Oraingoan, berriz, lehenengo lan luzea izango dute kalean ("A kien pueda interesar") hain zuzen, Mil A Gritos zigiluaren babespean.

Pepinok (ahotsa), Angelek eta Santik (kitarrak), Porrasek (baxua) eta Peiok (bateria) egiten duten musika punkia da, ulertzerreza, konplikaziorik gabekoa, baina letrak gogorrak dira erabat, oso zuzenak... lan hau kaletik eta kalerako egina dago, eta hori eskertzekoa da. Entzutea besterik ez duzu. Apirilaren 18tik aurrera kalean izango da.

BETAGARRI

Aspaldikoa da Betagarriren diskaren grabaketaren kontua; azken hilabeteotan zurrumurru ugari entzun ahal izan dira Gasteizko bazterretan. Ordua heldu zaie; Lorentzo Recordsen grabatutako lana hurrengo hilabetean kaleratuko dute Mil A Gritos zigiluaren eskutik.

Orain dela lau urte bost lagunek sortu zuten Betagri:

Miguel Angel (bateria), Txakal (baxua) Gontzo eta Aitor (kitarrak) eta Iñaki (ahotsa); handik gutxira Tabarez eta Goikok txalapartak sartu zituzten, nahasketa berezia eginez. Geroxeago, haize tresnak gaineratu zituzten: Unai (saxoa), David (tronpeta) eta Mikel (tronboia). Horrekin batera aldaketa ugari somatu ziren beraien estiloan. Haize tresnekin beste musika korronte ezberdinetara hurbildu zen Betagarri (reggae, ska...), beti ere rockanrolla ahaztu gabe. Bere lehen diska izango den honetan, horren froga argia erakutsiko digute. Bizkar Hezurako abeslaria den Triuk egin ditu produkzio lanak, eta Josu Mongek grabaketaren ardura hartu du. Kolabora- zioena ere aipatzeko gauza da, Joselu tekladuan, Maixa trikian, eta Anariren eta Itziarren ahotsak bertan agertuko baitira.

DAVID ALVEZ



IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ



GUREA



jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



spk



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I I
T U
Z N
U A
K